

Mantible

A r a b a k o E r r i o x a k o I K A E u s k a l t e g i a


El euskaltegi IKA de Rioja Alavesa y Viana además de dar clases de euskera a los/as adultos/as, realiza actividades destinadas a favorecer el conocimiento de la cultura euskaldun y el uso del euskera. Esta publicación que tienes entre manos quiere hacer de puente para todos/as aquellos/as que todavía no se han acercado al euskera o apenas lo conocen. Para ello contaremos con la ayuda de aquellos/as que han aprendido el idioma o lo están haciendo ahora. Esperamos que disfrutéis del contenido y si os animáis a aprenderlo no dudéis en acudir al euskaltegi IKA.



Eta barrualdean...

■ **Félix:** "Cuando empecé a estudiar euskara mucha gente me decía: *Pero ¿para qué estudias euskera? ¡Aprende inglés!* Yo he hecho lo contrario. Primero aprendí euskera, nuestro idioma, el de aquí; y ahora, estoy aprendiendo inglés". **2. or.**

■ **Koldo Mitxelena** fue el lingüista que más información tenía sobre el euskera. La mayor parte de sus obras científicas está escrita en español: *Historia de la Literatura Vasca* (1960), *Fonética Histórica Vasca* (1961) y *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964). **7. or.**



Mikel Urdangarin Logroñoko Sagastan

Mikel Urdangarin kantari bizkaitarrak emanaldi hunkigarri eta paregabea eman zuen Logroñoko Sagasta Institutuan. IKA euskaltegiak eta Laminiturri Kultur Elkartek antolaturik ehundaka lagun bildu ziren bertan. **8. or**

Oiongo IKA euskaltegia
Diputazio kalea, 32
01320 Oion
945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia
Berberana zeharkalea, 5
01300 Biasteri
945 621 055

<http://www.ikanet.net>
errioxa@ikanet.net



solasean.....

Felix Ruiz Ruiz-Carrillo



Como es costumbre en este apartado, conversamos con amigos/as sobre el euskera. En esta ocasión hemos tenido la oportunidad de conocer más a fondo a Félix, natural de Oyón. Tiene 49 años y hace ya muchos que trabaja en una bodega. Félix

fue el primer euskaldunberri de esta localidad.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

18 bat urte nituela hasi nintzen. Ikastola ireki berria zen eta Iparraldeko irakasle bat hasi zitzaigun astean bitan eskola ematen.

Zer dela eta ikasi zenuen euskara?

14-15 urte nituen arte euskara bazenik ere ez nekien. Kanpotar dezente etortzen zen Oionera. Nik lagun egin nituenak nire adineko eibartarrak eta eskoriatzarrak ziren, gure artean gazteleraz egiten genuen, baina gurasoekin zeudenean beste zerbait egiten zutela konturatu nintzen; ezagutzen ez nuen zerbait. Hortxe sortu zitzaidan jakinmina eta handik aurrera noiz ikasiko irrikan egon nintzen.

Con los veraneantes de Bizkaia y Gipuzkoa hablábamos en castellano, pero cuando estaban con los padres, me di cuenta de que hablaban otra cosa, algo desconocido para mí. Ahí me surgió la curiosidad, y desde entonces, no paré hasta aprenderlo.

Non ikasi duzu?

Hasiera lehen aipatutako irakaslearekin izan zen. Handik pare bat urtera edo, euskaltegia sortu zen eta urtebete Oionen eta jende faltagatik beste urtebete Biana aritu beharra izan nuen. Bi barnetegi ere egin ditut Gipuzkoan. Pila bat ikasten genuen klasean baina bai kalean ere. Gogoan dut behin Imanol abeslaria ere etorri zitzaigula.

Gororra edo zaila iruditu zaizu?

Niri ez zitzaidan batere gogorra egin, alderantziz, gozatu egiten nuela gogoratzen dut. Badakit jende askok esaten duela euskaltegira egunero bi orduz joatea gogorra dela. Nik ez dut horrela gogoratzen. Euskaraz

hala dio esaera zaharrak: “Gogoko tokian, aldaparik ez”.

Creo que lo que se le hace duro a la gente es pensar que va a tener que dedicarle a algo 8 horas semanales durante varios años, pero si queremos algo...

Zer espero zenuen zu hasi zinenean?

Gaztea nintzen eta nahiko utopikoa nintzela ere esango nuke; izan ere, belaunaldi gutxi batzuetan denok euskaraz egingo genuela uste bainuen. Ikastolan ikasiko zuten txikiak eta euskaltegian gurasoek eta gainerakoek eta urte batzuetan... Oion euskaldun.

Espero zen hura lortu al da? Zerk huts egin du?

Ez, oraindik lan pittin bat badago Oion euskalduntzen. Gazteek euskara ikasten dute baina ez dute egiten kalean. Gainera, ardura guztia etorkizunari utzi zaio, seme-alabak ikastolara bidalita nahikoa delakoan. Huts egin duen bakarra ez da hori: jende askok ez du ikusten esfortzua egitea merezi duenik, hemen erraz bizi baitaiteke euskaraz ezer jakin gabe. Dena dela, ez dut esan nahi ezer lortu ez denik, ez horixe. Oionen ezer ez egotetik, begira zenbat jende gauden euskaraz aritzeko moduan! Askok egin da!

Aunque estamos hablando en euskara, si se nos une alguien que no sepa, cambiamos al castellano; los castellano-parlantes no pueden hacer lo mismo.

Non eman dira aurrerapausuak? Non ez?

Gaur egun Oiongo gazte gehienek badakite euskaraz, ezagutzen asko aurreratu da alegia. Erabileran, berriz, ez hainbeste. Liburutegian baditugu euskal liburuak, hizkuntz-paisaia hobetu da, umeek eskolaz kanpoko jarduerak badituzte euskaraz, helduok ere baditugu noizean behin ekintzak euskaraz, baina ez da entzuten gehiegi tabernetan, dendetan, lantegietan... Ez dago planifikaziorik.

¿Qué le dirías a alguien que no sabe euskera?

¡Que aprenda! No sólo euskara, cuanto más sepamos, mejor. Saber euskera ayuda a la hora de entender este pueblo. Como dice la canción: “¿Qué Euskal Herria tendríamos sin euskera?”



zuek ere euskaraz.....

■ Aquí encontrarás conversaciones sencillas que se nos plantean todos los días, bien con los/as amigos/as, la familia, comprando en la tienda, tomando algo en un bar... Iremos proponiéndote distintas situaciones periódicamente, para que vayas aprendiendo. A continuación podéis ver cómo se desarrollaría una entrevista de trabajo.

LAN BILA



-Egun on!
 -Baita zeuri ere! Eseri, mesedez (*Igualmente. Siéntese, por favor*).
 -Mila esker.
 -Zure izena, mesedez.
 -Ana. Ana López.
 -Ondo da, Ana. Gure lan-eskaintza mantentze-lanetan aritzeko da. **Ba al daukazu esperientziarik** (*Bien, Ana. Nuestra oferta es para hacer trabajos de mantenimiento. ¿Tiene experiencia?*).
 -Bai. Hiru urte **eman nituen** Gasteizko hotel batean eta azkeneko bi urtetan supermerkatu batean. Bi tokietan mantentze-lanetan ibili naiz (*Sí. Estuve tres años en un hotel de Gasteiz, y estos dos últimos años en un supermercado. En los dos sitios he trabajado en mantenimiento*).
 -Ederki. **Ba al dakizu** beroketa-sistemak konpontzen? (*Muy bien. ¿Sabe arreglar sistemas de calefacción?*).
 -Bai, horixe. 300 orduko ikastaro bat egin nuen orain dela hirurte (*Sí, claro. Hice un curso de 300 horas hace tres años*).
 -Eta **zer moduz moldatzen zara** informatikarekin? (*¿Y qué tal se apaña con la informática?*).
 -Tira, oso ondo ez, baina moldatzeko beste bai (*Bueno, no muy bien, pero tanto como para arreglármelas sí*).
 -Ondo da. Bi aste barru deituko dizugu. Mila esker etortzeagatik (*Muy bien. Dentro de dos semanas le llamaremos. Muchas gracias por venir*).
 -Zuri (a usted).

■ Tened en cuenta estas frases/estructuras que se dan en el diálogo. Son perfectamente trasladables a otras situaciones.

Ba al daukazu esperientziarik? / Ba al daukazu seme-alabarik? / Ba al daukazu dirurik?
 Hiru urte **eman nituen** Gasteizko hotel batean / Bi aste **eman nituen** Anaren baserrian.
Ba al dakizu Beroketa-sistemak konpontzen? **Ba al dakizu** gitarra jotzen?
Zer moduz moldatzen zara informatikarekin? / **Zer moduz moldatzen zara** Antoniorekin?

HIZTEGIA (lanbideak)

Iturgin Fontanero/a
 Arotz Carpintero/a
 Lorazain Jardinero/a
 Errotari Molinero/a
 Artzain Pastor/a
 Nekazari, laborari Agricultor/a



Unai, behizain Vaquero/a
 Jostun, josle Satre/tra
 Sukaldari Cocinero/a
 Meatzari Minero/a
 Errementari Herrero/a
 Arrantzale Pescador/a



gure kuttunak.....

■ Esta página se va a dedicar a recoger los lugares o rincones más queridos por nuestros colaboradores. Ellos mismos nos explicarán cómo llegar y por qué les resulta tan especial. En esta ocasión...

Ekorako basiliza



Aurkeztu nahi dizuedan lekua Ekora ondoan dagoen Bercijanako Andra Mariren basiliza da. Oso leku lasaia da, izadian egoteko aproposa eta lagunekin edota umeeekin bazkariak edo askariak egiteko izugarri gustatzen zait.

Oiondik abiatzen bagara, Ekorara iristean lehenengo sarreratik sartuko gara herrian eta berehala eskuinera joko dugu; kale honetan herriko igerilekuak daude eta hauek pasa ondoren ezkerrera joango gara hilerrira eramaten duen bidetik. Hilerrira atzean utzita guk aurrerago jarraituko dugu basiliza ikusi arte.

Basiliza, leku polit batean dago, inguruan zelaiak daude eta handik *Leon Dormido* mendia ederki ikusten da. Urrutian, Labraza eta Gorrebusto herriak ere ikusiko ditugu eta ezkerrean Ekora.

Erretzeko lekuak daude eta umeei primeran pasatzeko jolasak dituen parke txiki bat ere badago.

Oso leku atsegina eta lasaia da, normalean ez

baita inor egoten. Animatu eta etorri ezagutzera, gustatuko zaizue eta.

La ermita de Yécora

Os quiero presentar un lugar que me gusta mucho, tanto para comer y merendar con amigos como para estar con los niños. Es la ermita de la Virgen de Bercijana, que se encuentra cerca de Yécora, un sitio tranquilo y en plena naturaleza.

Si partimos desde Oyón, nada más llegar a Yécora entraremos al pueblo por la primera entrada y enseguida giraremos a la derecha. Pasaremos las piscinas y un poco más adelante nos dirigiremos a la izquierda por el camino que lleva al cementerio. Después de dejar éste atrás seguiremos hasta encontrarnos con la ermita.



La ermita está situada en un bonito lugar, rodeado de campos y desde allí se ve “El León Dormido”. A lo lejos podemos observar los pueblos de Labraza y Barriobusto; y a la izquierda, Yécora. Si queremos preparar algo de comer tenemos lugares adecuados para hacer fuego y los niños lo pueden pasar estupendamente en el parque con los columpios.

Es un lugar agradable y tranquilo, pues normalmente no hay nadie. Animaos y venid a conocerlo. ¡Os gustará!




euskarak lagun.....

■ Hemos estrenado nuevo curso, y como ya es costumbre en el ejemplar de diciembre, estas dos páginas de "euskarak lagun" las dedicamos a una serie de instantaneas de nuestros alumnos/as. Aquí tenéis a algunos de ellos/as preparados/as para trabajar durante nueve meses sin descanso.





euskarak lagun.....





euskaltzaleak.....

Mitxelena Elissalt, Koldo (1915 - 1987)



Hizkuntzalaria (Errenteria, 1915-87). Filosofia eta Letretan doktore, Salamancako Unibertsitateko hizkuntza indoeuroparreko katedradun, EHUko errektoreorde eta irakasle izan zen. SFVJU mintegiko zuzendari, Bordeleko eta Bartzelonako unibertsitateetako honoris causa doktore (1983), EHUko irakasle emeritu eta hainbat erakundetako kide izan zen. Hizkuntzalaritzan espezializatutako aldizkarietan parte hartu zuen. Euzko Gudarostean gudari ibilia, preso hartu eta heriotza-zigorra eman zioten. Kartzelan hasi zen hizkuntzak ikasten eta idazten. Euskarari buruz informazio gehien zuen hizkuntzalaria zen. Heriotza-zigorra konmutaturik, kalera irten eta erresistentzian jardun zuen, eta bigarrenez izan zen atxilotua. Gaztelaniaz idatzi zituen bere obra zientifiko gehienak: *Historia de la Literatura Vasca* (1960), *Fonética Histórica Vasca* (1961) eta *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964). Euskaraz idatzitako lanen artean literatur kritika nagusitu zen; bere *Idazlan hautatuak* (1972) bilduma, euskal literatura ezagutzeko obra garrantzitsua da. Lan itzela egin zuen euskara hizkuntza moderno eta edozein beharretara moldatzeko moduko bilaka zedin. Berari zor zaio, nagusiki, euskara batuak aitzina egin ahal izana. *Orotariko Euskal Hiztegia* lan baliotsuari hasiera eman zion, baina bukatu aurretik hil zen. Euskaltzain osoa izan zen (1952-87).

Lingüista (Errenteria, 1915-87). Doctor en Filosofía y Letras, catedrático de Lenguas Indoeuropeas en la Universidad de Salamanca, vicerrector y profesor de la UPV. Director del Seminario de Filología Julio de Urkijo, doctor honoris causa por las universidades de Burdeos y Barcelona (1983), profesor emérito de la UPV y miembro de varias instituciones. Colaboró en revistas especializadas en lingüística. Participó en la guerra de 1936 como gudari, fue hecho prisionero y condenado a muerte. Comenzó a aprender idiomas y a escribir en la cárcel. Le conmutaron la pena capital y una vez puesto en libertad participó en la resistencia contra el franquismo y fue detenido de nuevo. Fue el lingüista que más información tenía sobre el euskera. La mayor parte de sus obras científicas está escrita en español: *Historia de la Literatura Vasca* (1960), *Fonética Histórica Vasca* (1961) y *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964). Entre sus trabajos escritos en euskera destacan los de crítica literaria. La recopilación de sus trabajos titulada *Idazlan hautatuak* (1972) es de gran importancia para conocer la literatura en euskera. Realizó un gran esfuerzo para convertir el euskera en una lengua moderna y adaptada a cualquier necesidad de expresión. A él se le debe principalmente que el euskera unificado saliera adelante. Dirigió la elaboración del *Diccionario General Vasco* pero falleció antes de culminar la obra. Fue miembro de número de Euskaltzaindia (1952-87).

Mitxelena Gerra garaian gudari. Ezkerretik hasita bigarrena.



■ El cantautor de Zornotza **Mikel Urdangarin** dio un gran concierto el pasado septiembre organizado por la Asociación Cultural **Laminiturri** e **IKA** con motivo del inicio del nuevo curso. Un centenar de euskaltzales acudió al Instituto Sagasta de Logroño para disfrutar de un bello repertorio de canciones. Entre las canciones ofrecidas por Mikel os presentamos "Zubia" ("El Puente") que da nombre a su último disco, y que además, tiene mucho que ver con esta publicación.



Beirazko landare
izan gura nuke
irauteko, ez galtzeko
gaur urrun zaidan pausua ibil dezadan...

...Bihar berriz luma hotz
hitz polittak arrotz, beldur esateko
ispiluaren aurrean mintzo nintzaizun bart
Eta zuk, badakizu, gertu ez baina
zubiaren bestaldean nago

Paperezko ametsak, azken negu beltza margotu,
argia piztu
oinak behenganean, bihotza soinean ta sentitu,
eta ez gelditu
zauria eta laztana, musua eta orbana

Eta zuk, badakizu, lorak zimur
ibaiaren beste ertzean nauzu
isilpean, gertu ez baina
zubiaren bestaldean nago.



euskaraba.com
arabako euskararen ataria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

TESTUAK: Arabako Errioxako IKA ■ hiru.com ■ Mikel Urdangarin
ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA ■ gipuzkoakultura.net ■ AEE (euskomedia fundazioa) ■ alava.net
ILUSTRAZIOAK: wordpress.com ■ Alfredo Alvarez